## MUSIKA

BILBO

- ***Don Sebastiano*** Donizettiren opera Arriaga antzokian, 20:00etan.
- **Zugarramurdi** taldearekin euskal soinu tresnen emanaldia Santa Clarako Anfiteatroan, 18:30etan.

GASTEIZ

- **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa** Principal antzokian.

## HITZALDIA

BILBO

- ***Kurdistan, un pueblo al que se le niega su derecho a existir*** hitzaldia emango du Mendo Balci Kurdistango Askapen Nazionalerako Fronteko ordezkariak (ERNK), Batzar Nagusien hitzaldi aretoan (Hurtado Amezaga, 6), 20:00etan. Komite Internazionalistak antolatuta.
- ***Don Gaspar de Guzman conde-duque de Olivares*** hitzaldia emango du Carmelo Lison Tolosanak BBK Kultur Gelan (Elkano kalea, 20), 20:00etan. *Velazquezen Maisulanak IV. mendeurrena.*

GASTEIZ

- ***Cuando los seres queridos... se hacen mayores...*** gaiaz hitz egingo dute Lakua gizarte etxean, 15:30etatik 17:00etara.

LASARTE-ORIA

- ***Educación sanitaria*** hitzaldia Manuel Lekuonako Hitzaldi aretoan, 16:30etan.

LEGAZPI

- ***Kilela (Zaire) hospitale proeiktuaren*** inguruko hitzaldia emango dute Jon Amilibiak eta Jaione Ormazabalek Kultur Etxean, 20:00etan, Parrokiko Misio Batzordeak antolaturik.

LIZARRA

- ***Mercaderes y Hombres de negocios en la Estella bajomedieval*** hitzaldia emango du Alfredo Elia Munarrizek Gustavo de Maeztu museoan, 20:00etan.

ORDIZIA

- **Itoizekiko Solidarioen** hitzaldia Barrena kultur etxean, 20:00etan.

## ANTZERKIA

BILBO

- ***Aiguardent*** obra interpretatuko du Marta Carrascok, Bilborock aretoen, 22:00etan.

## ZINEMA-BIDEOA

BARAKALDO

- ***Los amantes del círculo Polar*** Julio Medem zinemagilearen filma Barakaldo antzokian, 22:30etan.

BILBO

- ***Cinco tardes*** Nijita Mijalkoven filma, jatorrizko bertsioan, Ayala antzokian, 17:00etan.

IRUÑEA

- ***El secreto de los Abbott*** Pat O'Connorren filma Mikael zineman, 19:45etan. Lux zine-kluba.

## HITZALDIA



KOLDO ALDUNTZIN

### Herri kirol eta jolasei buruzko hitzaldiak Gasteizen

**_Herri Kirol eta Jolasak Euskal Kulturan_ gaiari buruzko jaldunaldia izango da gaur Gasteizen, Estadio aretoan. KULKIk antolatu du (Kultura eta Kirola , Estadio Fundazioaren eta Akitania-Euskadi-Nafarroa Fondoaren laguntzarekin. Helburua da herri kirol eta jolasak euskal kulturan duen tokia aztertzea. Xede horrekin, 19:00etan hasiko da jardunaldia, Rafael Agirre Francoren hizketaldiarekin. Euskal Kirol eta Jolas Federazio Nazionalaren lehendakari ohia da bera. Ondoren, 20:00etan, Fermin Leizaola Calvo, Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografia Saileko lehendakaria, _Herri jolasak euskal kulturan_ gaiaz mintzatuko da. Jaldunaldia amaiatzeko. sagardotegiko ohiko postrea jango dute.**

## IKASTAROAK

BILBO

- **Kantu fonetika eta interpretazio ikastaroa.** Alejandro Zabalak (pianojolea) eta Carmen Torreblanca irakasleek emango dute, eta abeslari eta pianojoleei zuzuzenduta dago. Barrainkua kultur etxean izango da, eta izena otsailaren 19a baino lehen eman behar da. Telefonoa: 94 424 28 51.

DONOSTIA

- **Euskara suspertzaile monografikoa.** Euskararen normalizazioa aisialdiko ekintzen bidez lortu nahi duteneei zuzenduta dago. Otsaileko eta martxoko lau larunbatetan burutuko da. Antolatzailea Urtxintxa, izena emateko epea otsailaren 15a. Argibide gehiago 943-427927 telefonoan.

TOLOSA

- **Lan bilaketarako ikastaroa.** Hamabi ikastordu izango dira, otsailaren 22 eta 23an, eta martxoaren 1, 2, 8 eta 9an. Goizeko 10:00etatik 12:00etara. Argibide gehiago Tolosako EPAn (Igaralde kalea, 23). Telefonoa: 943 672 660. Villabonako EPAn ere bai.

ZALDIBIA

- **Euskalduntze, alfabetatze eta hika ikastaroak.** Interesatuek otsailaren 12a baino lehen kultur etxean izena eman behar dute.

## LEHIAKETAK

ARRASATE

- **Ipuin, poesia, komiki, Leintz eta Ugaran bailaretako euskararen testigantzak, irrati erreportaia eta bertso paper lehiaketak.** Deba-Garaiko biztanleek baino ezin dute parte hartu. Euskaraz idatzitako obra orijinalak eta inoiz argitaratu edo saritu gabeak bakarrik aurkeztu daitezke. Lanak helbide honetara bidaliko dira: AED Elkartea, 'Arrasate 98' lehiketak, Pablo Uranga kalea, 4 behea, 20500 Arrasate. 1999ko otsailaren 26a baino lehen.

EIBAR

- **Pegatina lehiaketa.** Eibarko Udalaren Kultura eta Gizartekintza batzordeek alkohol gehiegi ez edateko umore kutsua daukan pegatina sortu nahi dute. Pegatinak otsailaren 24a baino lehen Portalean utzi behar dira (Bista Eder, 10-1).

ERRENTERIA

- **Errenteriako Hiria X. Komiki lehiaketa.** 16 eta 30 urte bitarteko egile gazte guztiek har dezakete parte. Lanak Errenteriako Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira, otsailaren 15a baino lehen.

GETXO

- **Getxoko Nazioarteko Jazzaldiko Talde Lehiaketa.** Jazzaldiaren lehen hiru egunetan egingo da lehiaketa —uztaileko lehen hiru egunetan—, eta Europako edozein talderi dago zuzenduta, parte hartzen dutenen gehienezko adina 30 urtekoa izanik. Irabazleak 500.000 pezetako saria jasoko du eta, gainera, disko bat grabatzeko aukera izango du. Izena emateko epea 1999ko otsailaren 13a arte izango da zabalik.

HERNANI

- **VII. Bertso-paper lehiaketa 'Joxe Legarreta' saria.** Udalak antolatu du eta hiru maila bereziko dira. Lanak aurkezteko epea otsailaren 25ean amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 - 55 45 53 telefono zenbakira deitu.

TRAPAGARAN

- **Ingurugiroari buruzko argazki lehiaketa.** Udalak antolatu du eta nahi duten zaletu guztiek har dezakete parte. Maila bi bereituzko dira: 12 urtetik 17 urte bitartekoena eta 18 urtetik gorakoena. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira, Udaletxean. Argibide gehiago nahi izanez gero, 94 492 41 23 telefono zenbakira deitu.

ZUMAIA

- **Logotipo lehiaketa** Zumaiako Lubaki Kiroldegiak antolatuta. Nahi duten guztiek har dezakete parte eta lanak otsailaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira Kiroldegian edo Forondan. Telefonoa: 943 86 10 56.

## BESTELAKOAK

BILBO

- ***Lagun artean kantari.*** Kantuan egiteko saio irekia, Kafe Antzokian, perkusio eta abarren laguntzaz, 20:00etan.

GASTEIZ

- **Ipuin kontaketa** euskaraz, Iñaki Carreterorekin Kultur Etxean, 18:00etan. AFAko Kultura eta Euskara Sailak antolatuta.